

**AJANGIZKO HERRIAREN OMENAXDIA
BALENDIN AURRE-APRAIZI**

Aurtongo maiatzaren 2an, domekaz, Ajangizek omena eskaini zion Balendin Aurre-Apraiz "Aurraitz" euskal idazle eta herriko seme finari. Gernika alboko herritxo hau eguraldi onagaz jagi zen goiz hartan. Ekitaldia udalak antolatu zuen, eta Balendinegaz batera Luis Intxaurrea herriko organista goretsi zen, biek kulturaren aide egindako lana eskertzeko. Euren omenezko mezaren ostean dantzariak egin zieten gorazarre, jendez polito inguratuta zegoen plazan. Eguerdiko 12etan, Aliziak, herriko anderenoak, zuzendu zuen berbaldia, omendu bien ekarpenak gomutatuz. Aliziak Balendinen olerki eder bat ere irakurri zuen, "Ba-noa", Amerikako exiliotik Euskal Herrira bidean idatzitakoa:

*Ba-noa.
Aupoza!
Abeslari daukat biotza.*

*Agur, atzerri legorra,
Atsekabeen zelai ankerra.*

*Ba-noa
Aupoza!*

Zapartari daukat biotza.

*Ba-noa
aberrira,
Euskalerrri'ra,
Aiangiz'ko baso-artera,
etxera!*

*Begira daukadaz etxeoak
-neure kutun laztanak-,
adiskide, lagun eta auzoak.*

*Ba-noa.
Aupoza!
Agur, betiko, atzerri itsa.*

*Baitegitik urtetako neban
baizen aundia da nirepoza.
taster ibituko nire errimin,
eta igesi biotzeko samin.*

*Neutarren artean
-geure oitto-lurrean-
izan gura dot, ba,
poz eta atsekabe,
goibel tapozkida,
Urtzi'ren oldea
une guztietan
ustetsu eginda.*

*Ba-noa.
Sekula olako pozkidarik!*

GIZARTRA

*Zain daukat, ba, zapuztu neban
Zoruna, maitasunez beterik. **

Pozik ikusi genuen Balendin, hunkituta. Hunkigarria baitzen ha guztia. Balendinek, erantzun moduan, berba batzuk esan zituen. Bere olerkigintza aipatu zuen, Andima Ibinagabietzagaz izandako harremana; baita ere gogorarazi zuen bere 92 urteekin herriko zaharrena zela, baina urte guztiotan idazten ibili arren, sekula ez zitzaiola burutik pasatuko inoiz omenaldirik egingo ziotenik. Berba apal eta esker onez beteak izan ziren.

Azkenean, iloba gazte batek plaka-oroigarria eman zion, eta beste ilobatxo txiki potxolo batek lore-sorta. Berbaldien ostean hamaiketako eskaini zen plazan. Jan-edan eta solas giro atseginean amaitu zen ekitaldia. Hola, etxeko, adiskide, lagun eta auzoen artean, ospatu zuen Balendinek omenaldia. Ondo me-rezitako omenaldia.

Jurgi Kintana Goiriena

Hitzatzea. Baten batek agian jakin gurako du ea nondik ir-teten naizen ni istorio honetan. Egia esan omenaldia baino as-tebete lehenago ezagutu nuen Balendin bere baserrian. Azkue-zenaren inguruko ikerketa egiten nabil, eta, gai honi lotuta, us-tez Balendinenak ziren gutun batzuk agertu ziren Euskaltzaindian. Josune, Euskaltzaindiko bibliotekariak, Balendinengana joatera animatu ninduen eta han abiatu ginen biok Aliziak lagunduta. Azkenean gutunok ez ziren Balendinenak izan, baina edozelan ere bisitak merezi izan zuen, "Aurraitz" ezagutzeko aukera eman zigun eta. Gainera, bisita hartatik, Euskaltzaindiari hainbat gutun utzi zizkion Balendinek, artxiboan gordetzeko, berari Andima Ibinagabeitiak, Jokin Zaitetik, Koldo Mitxelenak, eta beste



Ibinagabeitiak, Jokin Zaitetik, Koldo Mitxelenak, eta beste hainbatek idatziak.

Egia esango dut? Ba egun hartan, bere baserrian ikusi nuen, Balendinek harritu egin ninduen. Geure Nabarnizko aittitte zena gogorarazi zidan. Soloan gogor behar egindako gizon bat, lanak zaildutako eskuekin, eguzkiak gorritutako azalagaz, irribarrea ahoan eta txapela buruan. Baserritar zintzo bat. Baina gure aittittek apenas zekien firmatzen, eta Balendinek ostera olerki ederrak idatzi ditu. Ba ote? -pentsatu nuen— zelan izan daiteke, hemen, Ajangizen, baserri xume honetan jaio eta hazita, eskolan euskaraz alfabetatzeko aukera izan barik, literatur gune handietatik urrun, Balendinen mailako idazle bat agertzea? Rabindranath Tagore bera euskaratu du Balendinek! Ba bai, euskaldun baserritar apalen artean, batzuk, beren olerkari senak eta ahalegin pertsonalak eraginda, beren alorra zabaldu eta jorratu dute letren Parnaso unibertsalean. Euskalgintzaren garairik ilunenean, belaunaldi ixil bat, gaur erdi ahaztua, lanean aritu izan da, eskuzabal. Ohore Balendini eta bere belaunaldiko euskal idazle guztiei.

Zelan ez ginen ba joango Balendinen omenaldira? Domekan, ikusi gintuenean, ezagutu ez ezik (beragaz behin bakarrik egon arren), etortzeagatik eskerrak eta guzti eman zizkigun Karmeleri eta bioi. Segituan, "ezer jan dozue?" itaunduta, hamaiketakora gonbidatu gintuen. Ze jatorra den gizona. Euskal idazleen belaunaldi bateko azkenetakoa, buru argia eta luma zorrotza, oraindik... eta urte askotan!

* Balendinen olerki hau, bere idazki guztiekin batera, *Egunen bidean* liburuan bilduta aurki daiteke (Karmel Sorta - 6, Larrea-Zornotza, 1994, 176-177 orr.).